

# XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 4637

*EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 16koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, UPV/EHUko zenbait fakultate eta unibertsitate eskolako kalitate batzordeen arautegiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emateko dena.*

Konstituzioak 27.10 artikuluan autonomia aitortzen die unibertsitateei, eta hortik datorkie beren burua antolatzeko araubide propioa izatea, beren interesak babesteko. Araubide horren funtsezko osagai bat da unibertsitateek ahalmena izatea beren arautegiak egiteko.

2010eko apirilaren 29ko Gobernu Kontseiluaren deialdian, Gobernu Kontseiluak ikastegietako kalitate batzordeen oinarritzko arautegia onartu zuen, UPV/EHUko ikastegi bakoitzak bere kalitate batzordearen arautegia egiteko jarraibideak ematen dituena. 2010eko azaroaren 11n Gobernu Kontseiluak oinarritzko arautegi horretako 5. artikulua aldatu zuen, hau da, laguntza batzordeak arautzen dituena.

2011ko uztailaren 21ean fakultate eta unibertsitate eskola hauetako kalitate batzordeen arautegiak onartu ziren: Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatekoa; Psikologia Fakultatekoa; Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoa; Nautika eta Itsasontzi- makineria Goi Eskola Teknikokoa eta Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolakoa.

Azkenik, UPV/EHUko Estatutueta 187.1.d) atalak dio idazkari nagusiak bermatu behar duela UPV/EHUko erabakiak argitaratuko direla; eta, bestalde, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, dio erabakiak oso-osorik argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Horregatik guztiagatik, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004ko 10.2 artikulua betez, honako hau

### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Agindua ematea fakultate eta unibertsitate eskola hauetako kalitate batzordeen arautegiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko:

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatekoa: Igo eranskina.

Psikologia Fakultatekoa: II. eranskina.

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoa: III. eranskina.

Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikokoa: IV. eranskina.

Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolakoa: V. eranskina.

Bigarrena.– Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta honen kontra, gura izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok idazkari nagusiari hilabeteko epean, erabakia argitaratzen denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal

2011ko irailaren 22a, osteguna

Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hilabete biko epean.

Leioa, 2011ko abuztuaren 16a.

Idazkari nagusia,  
EVA FERREIRA GARCÍA.

## I. ERANSKINA

FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO KALITATE BATZORDEAREN  
ARAUTEGIA

Hitzaurrea.

Arautegi honen helburua da Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Kalitate Batzordearen funtzionamendurako arauak ezartzea.

UPV/EHU Europako Unibertsitate Eremuan sartzeko prozesuan gradu berrien ikasketa planak diseinatu dira, eta testuinguru horretan Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema bat (KBBS) ezarri du. 2009ko otsailaren 18an Fakultateko Batzarrak sistema hori eta bera garatuko zuen egitura onartu zituen.

Gero, besteak beste, tituluko KBBSko prozedurak ebaluatu, berrikusi eta hobetzeko prozedura onartu zen (lehenengo edizioa: 2009-02-11; testu eguneratua: 2010-02-10), bai eta graduko irakaslanako koordinatzeko prozedura ere.

Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2010eko apirilaren 29an, Ikastegietako Kalitate Batzordeen Oinarrizko Arautegia onartu zuen. Bertan biltzen dira ikastegietako kalitate batzordeen arautegietan jaso behar diren gutxienezko arauak. Batzordearen eginkizunak, osaera eta funtzionamenduak zehazten dira.

1. artikulua.– Arautegiaren helburua.

1.– Arautegi honen helburua da arautzea UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaz (KBBS) arduratuko den organoaren egitura, osaera eta eginkizunak.

2.– UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Kalitate Batzordeak arautegi honi eta arlo honetan aplikatu beharreko gainerako arauari jarraituko die.

2. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Kalitate Batzordeak eginkizun hauek ditu:

- a) Fakultatearen kalitate politika gainbegiratzea eta berrikustea.
- b) Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren diseinua, ezarpena, abian jartzea eta jarraipena bultzatzea.
- c) Fakultateko prozesuen mapan eta KBBSn bildutako prozedurak garatzea.
- d) Prozesuei jarraipena egitea dagozkien adierazleen bitartez.
- e) Fakultateko dekanotza taldeari batzordearen proposamenak aurkeztea.
- f) Fakultatearen urteko helburuak jaso eta, behar denean, haien formulazioa koordinatzea, eta helburuok betetzeko prozesuari jarraipena egitea.
- g) Gogobetetze inkesten emaitzak jasotzea eta haietatik abiatuta hobekuntzak proposatzeko irizpideak ematea.

h) Urteko jarraipen txostena egitea KBBSren azterketa eta berrikuspenetik abiatuta, eta hobekuntza ekintzak proposatzea titulazioetarako ezarritako helburuak betetzeko.

i) Tituluen akreditazioa lortzen eta aldiro berritzen laguntzea.

j) Ikastegiko kalitate politika eta helburuen berri emateko tresna izatea, eta helburuok bete daitezzen eta unibertsitateko kideen artean zabal daitezzen bermatzea.

k) Titulazioetako curriculuma garatzeko plangintza eta haren zehaztapena egiten laguntzea.

l) Ikastegiko irakasleek gradu berrietako curriculuma hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikas ditzaten sustatzea.

m) Ikastegiko kideak eta interes taldeak kalitateari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza har dezaten bultzatzea.

n) Ikastegiko zuzendaritzari aholkua ematea Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari dagozkion gaietan.

o) Ikastegiko Batzarrari bere eskumenen eremuko erabaki proposamenak aurkeztea.

2.– Ikastegiko Batzarrak, dekanotza taldearen proposamenari jarraituz, Kalitate Batzordeari eskuordetu ahal izango dizkio berari dagozkion eta kalitatearekin zerikusia duten eginkizunak.

3. artikulua.– Osaera.

1.– Hauek izango dira Kalitate Batzordearen osakideak:

a) Dekanoa. Batzordeko burua izango da.

b) Hobekuntza eta Berrikuntzako dekanordea-

c) Fakultateko idazkari akademikoa. Batzordeko idazkaria izango da.

d) Irakasle eta ikertzaileen lau ordezkari (bat titulazio bakoitzeko), dekanotza taldeak aukeratuak. Ikastegian egoitza duten sailek edo ikastegiko sail atalek proposatuko dituzte, eta dekanotza taldeak berretsi egingo ditu proposamenak. Irakasle eta ikertzaile hauek ezin izango dira dekanotza taldeko kideak izan.

e) Titulazioen koordinatzaileak.

f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, ahal dela kalitatearen arloan arduraren bat daukana.

g) Ikasleen ordezkari bi, ikastegiko Ikasleen Kontseiluak proposatuta.

2.– Kalitate Batzordeko kideak Fakultateko Batzarrak izendatuko ditu, lau urterako izendatuko ere. Ikasleen ordezkariak, berriz, bi urterako izendatuko ditu, baina epe hori luzatu ahal izango da.

3.– Ikastegiko Kalitate Batzordearen irizpideek eta jardunak jarraipena izan dezaten, irakasle eta ikertzaileen ordezkariak dagokienez, erdiak baino ez dira aldatuko batzordea berritzen den bakoitzean, eta hori bi urterik behin izango da.

4. artikulua.– Laguntza batzordeak.

1.– Kalitate Batzordeak Fakultateko Batzarrari laguntza batzordeak osatzea proposatu ahal izango dio. Batzordeak berak proposatuko ditu eta Fakultateko Batzarrak izendatuko. Kalitate

Batzordearen menpe egongo dira eta aholkurako izango dira. Kalitate Batzordeak honako hauek proposatuko ditu batzorde bakoitzerako: osaera, batzordeko burua eta idazkaria nortzuk izango diren; jarduera arloa eta eginkizunak; eta, behar izanez gero, haren funtzionamenduaren berezitasunak.

2.– Zehazki, Fakultateko Batzarrak, kontuan hartuta graduako irakaslanak koordinatzeko PN-Pr-01 prozeduran ezarritakoa (KBBSn dago jasoa prozedura hori), graduako tituluak koordinatzeko batzordeak izendatuko ditu, fakultateak eskaintzen dituen tituluen curriculumak garatzeko.

3.– Hauek izango dira graduako tituluak koordinatzeko batzordeetako osakideak:

a) Titulazioko koordinatzailea.

b) Maila edo moduluko koordinatzaileak (horiek eratuko dute, maila edo moduluko irakasleekin batera, Moduluko Diziplinarteko Mintegia, Pedagogiako Graduaren eta Gizarte Hezkuntzako Graduaren kasuan; edo Mailako Diziplinarteko Mintegia (Gizarte Antropologiako Graduaren eta Filosofiako Graduaren kasuan).

c) Kasuan kasuko graduako ikasleen ordezkari bi, Ikasleen Kontseiluak proposatuta.

d) Gradu amaierako proiektuen koordinatzailea

e) Kasuan kasuko graduako practicumaren koordinatzailea, halakorik dagoen titulazioen kasuan.

4.– Era berean, batzorde bat sortu ahal izango da Irakasleen Irakaskuntza Jarduera Ebaluatzen «Docentiaz» Programarako informazio iturria izan dadin. Batzorde hau eratzean bete beharko dira unibertsitateko sektore guztiak Kalitate Batzordean ordezkaturik egoteko irizpideak, eta, edozelan ere, ezinbestekoa izango da ikastegiari atxikitako sail edo sail atalen ordezkariak egotea batzordean. Ikastegiko Batzarrak berretsi beharko du bai batzordearen osaera eta bai osakideen izendapena.

5. artikulua.– Funtzionamendurako araubidea.

1.– Kalitate Batzordeak jarraituko die Fakultateko Batzarraren bileretarako ezarritako arauak.

2.– Batzordearen erabakiak bileran daudenen botoen gehiengoz hartuko dira. Batzordearen erabakiak ez dira nahitaez bete beharrekoak izango, baina ikastegiko dekanotza taldeari bidali beharko zaizkio dagokien neurriak har ditzan.

Batzordeko idazkariak akta egin eta Kalitate Batzordeko kide guztiei bidaliko die, eta jendaurrean jarriko du fakultateko kide guztien esku egon dadin.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Arautegia indarrean sartu eta handik bi urtera aldatuko dira batzordeko kideen erdiak lehenengo aldiz.

Bigarrena.– Batzordeetako kideek isilekotasun betebeharra izango dute, batez ere datu pertsonalei dagokienez. Era berean, batzordeek datu pertsonalen fitxategiak sortu eta erabiltzean men egin beharko diete datu pertsonalei buruzko araei.

## AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.

## II. ERANSKINA

## PSIKOLOGIA FAKULTATEKO KALITATE BATZORDEAREN ARAUDIA

## 1. artikulua.– Izaera eta helburuak.

Psikologia Fakultateko Kalitate Batzordea da ikastegi horretako organo iraunkorra. Ikastegiko Kalitatea Bermatzeko Sistemaren (KBS) plangintza eta jarraipen lanetan parte hartzen du, eta, gainera, barne komunikaziorako tresnetako bat da, hots, sistema horren politika, helburu, plan, programa, erantzukizun eta lorpenen barne komunikaziorako bideetako bat da.

## 2. artikulua.– Kideak.

Psikologia Fakultateko kideek osatuko dute Kalitate Batzordea eta estamentu hauek ordezkatuko: irakasleak, Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala eta ikasleak.

## 3. artikulua.– Eginkizunak.

## 1.– Kalitate Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) diseinua, ezarpena, abiatzea eta jarraipena bultzatu.

b) Prozesuen jarraipena egin haiekin lotutako adierazleen bitartez.

c) Ikastegiko zuzendaritzari edo dekanotzari aurkeztu batzordean hartutako proposamenak.

d) Fakultatearen urteko helburuak jaso eta, behar denean, haien formulazioa koordinatu, eta helburuok betetzeko prozesuaren jarraipena egin.

e) Gogobetetze inkesten emaitzak jaso eta haietatik abiatuta hobekuntzak proposatzeko irizpideak eman.

f) Urteko jarraipen txostena egin Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren azterketa eta berrikuspenetik abiatuta, eta hobekuntza ekintzak proposatu titulazioetarako ezarritako helburuak betetzeko.

g) Tituluaren akreditazioa lortzen eta aldiro berritzen lagundu.

h) Ikastegiko kalitate politika eta helburuen berri emateko tresna izan, eta helburuok bete eta unibertsitateko kideen artean zabal daitezen bermatu.

i) Titulazioko curriculumak garatzeko plangintzan eta hedapenean lagundu.

j) Ikastegiko irakasleek gradu berrietako curriculumak hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikas ditzaten sustatu.

k) Ikastegiko kideek eta interes taldeek kalitateari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza har dezaten bultzatu.

l) Ikastegiko zuzendaritzari aholkua eman Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari dagozkion gaietan.

m) Ikastegiko Batzarrari erabakiak onartzeko proposatu, betiere haren eskumenen arlokoak izanik.

n) Fakultateko Batzarrak kalitatearen kudeaketarekin lotuta dauden eginkizun guztiak eskuordetzen dizkionak.

4. artikulua.– Osaera.

1.– Hauek izango dira Kalitate Batzordea osatuko dutenak:

a) Dekanotza taldea.

b) Psikologia Fakultateari atxikitako sailtako zuzendariak.

c) Mailako koordinatzaileak.

d) Titulazioko koordinatzailea.

e) Ikastegiko administratzailea eta dekanotza taldeari laguntzen dion teknikaria.

f) Ikasleen bi ordezkari, Ikasleen Kontseiluak proposatuta.

2.– Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria izango da batzordeko burua, edo hark eskuordetutako eskumenak darabiltzan pertsona. Ikastegiko Kalitate Batzordeak berak hautatuko du idazkaria bere kideen artean.

3.– Dekanoak izendatuko ditu Kalitate Batzordeko kideak eta Ikastegiko Batzarrak berretsi. Batzordeko kideen izendapenaren epea karguari (edo mailari) dagokiona izango da. Ikasleen kasuan bi urtekoa izango da, epea luzatu ahalko bada ere.

5. artikulua.– Laguntza batzordeak.

1.– Kalitate Batzordeak berorren mende egongo diren laguntza batzordeak sortu ahalko ditu. Aholkuak emateko balioko dute. Kalitate Batzordeak erabakiko du zein izango den batzorde horietako bakoitzaren osaera, zein izango den presidentea eta idazkaria, zer esparrutan jardungo den, funtzioak, eta, behar izanez gero, funtzionamendurako berezitasunak.

2.– Ikastegiak zenbat titulu koordinatu, curriculumak garatzeaz arduratuko diren hainbat batzorde sortu ahalko dira. Unibertsitateko sektore guztiak Kalitate Batzordean ordezkaturik egoteko ezarritako irizpideak bete beharko dira batzorde horiek osatzean. Batzorde horietako kide izango dira mailako koordinatzaileak.

3.– Batzorde bat sortuko da irakasleen irakaslan ebaluatzeko programarako (Docentiaz) informazio iturri gisa. Hauek dira batzorde hori osatuko dutenak:

Dekanoa edo hark bere ordezkari izendatzen duena.

Titulazioko koordinatzailea.

Psikologia Fakultateari atxikita dauden sail bakoitzeko ordezkari bat.

Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkari bat.

Ikasleen ordezkari bat.

Artikulu honetako lehen puntuan jasotakoa gorabehera, Fakultateko Batzarrak berretsi beharko ditu Docentiaz-i laguntzeko batzordearen osaera eta kideen izendapena.



6. artikulua.– Funtzionamendurako araubidea.

1.– Kalitate Batzordeak Ikastegiko Batzarren bileretarako ezarrita dauden arauak hartuko ditu kontuan haren funtzionamendurako, horiek aplikatu daitezkeen neurrian.

2.– Batzordearen erabakiak bileran daudenen botoen gehiengoz hartuko dira. Presidenteak kalitateko botoa izango du. Batzordearen erabakiek ez dute izaera betearazlea izango. Ikastegiko zuzendaritzari edo dekanotza taldeari igorriko zaizkio behar diren neurriak har ditzaten.

3.– Batzordeko idazkariak akta egin eta Kalitate Batzordeko kide guztiei bidaliko die, eta jendaurrean jarriko du ikastegiko kide guztien esku egon dadin.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Konfidentziasuna bermatu beharko dute batzordeetako kideek, batez ere datu pertsonalei dagokienez.

Era berean, datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia hartuko dute kontuan batzordeek datu pertsonalen fitxategiak sortu eta erabiltzean.

#### AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.

## III. ERANSKINA

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEKO KALITATE BATZORDEAREN  
ARAUDIA

Hitzaurrea.

Araudi honen helburua da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kalitate Batzordearen funtzionamendua arautzea.

Ikastegiko Kalitate Batzordea Ikastegiko Batzarrak izendatutako batzordea da. Zuzendaritza edo dekanotza taldearekin batera, Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren plangintza eta jarraipen zereginetan dihardu, eta, gainera, barne komunikaziorako tresnetako bat da, hots, sistema horren politika, helburu, plan, programa, erantzukizun eta lorpenen barne komunikaziorako bideetako bat da. Ikastegiko Kalitate Batzordea izango da, gainera, ikastegiko zuzendaritza taldeari eta Ikastegiko Batzarrari lagundu eta aholkuak emateko organoa tituluen curriculumak garatzeko plangintzan eta jarraipenean. Hori egingo da gaitasunetan oinarritutako irakatsi eta ikasteko ereduaren arabera, metodologia aktiboak eta informazio eta komunikazio teknologiak baliatuz ikaskuntza autozuzendua (banakakoarena eta taldearena) eta etengabeko ebaluazioa sustatuko dira, betiere irakaskuntza eleaniztuna duen testuinguru batean eginik. Era berean, ikastegiko Kalitate Batzordea arduratuko da txostenak egiteaz eta, geroago, irakasleek ebaluatuko dituzte.

Ikastegiko Batzarrari dagokio, UPV/EHUko ikastegietako gobernu eta ordezkartzarako kide anitzeko organoa den aldetik, ikastegiko kalitate politika eta helburuak onartzea, bai eta Kalitate Batzordearen eraketa, osaera eta funtzioak onartzea ere. Halaber, Ikastegiko Batzarra da titulazioak hobetzeko ekintzak onartzeaz arduratu behar duena, Graduako Tituluen Kalitatea Bermatzeko Sistemaren markoan eta Kalitate Batzordeak aurkeztutako sistema ebaluatzeko txostenetan, besteak beste, oinarrituz.

1. artikulua.– Araudiaren helburua.

1.– Araudi honen helburua da ikastegiko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) ardura duen organoaren egitura, osaera eta eginkizunak zehaztea.

2.– Izen hau izango du organo horrek: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kalitate Batzordea.

2. artikulua.– Araubide juridikoa.

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kalitate Batzordea arautegi honen arabera jardungo da, baita aplikatu dakizkikeen gainerako arautegien arabera ere.

3. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kalitate Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren diseinua, ezarpena, abiatzea eta jarraipena bultzatu.
- b) Prozesuen jarraipena egin haiekin lotutako adierazleen bitartez.
- c) Fakultateko dekanotza taldeari aurkeztu batzordean hartutako proposamenak.

d) Ikastegiaren urteko helburuak jaso eta, behar denean, haien formulazioa koordinatu, eta helburuok betetzeko prozesuaren jarraipena egin.

e) Gogobetetze inkesten emaitzak jaso eta haietatik abiatuta hobekuntzak proposatzeko irizpideak eman.

f) Urteko jarraipen txostena egin Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren azterketa eta berrikuspenetik abiatuta, eta hobekuntza ekintzak proposatu titulazioetarako ezarritako helburuak betetzeko.

g) Tituluaren akreditazioa lortzen eta aldiro berritzen lagundu.

h) Ikastegiko kalitate politika eta helburuen berri emateko tresna izan, eta helburuok bete eta unibertsitateko kideen artean zabal daitezen bermatu.

i) Titulazioko curriculuma garatzeko plangintzan eta hedapenean lagundu.

j) Ikastegiko irakasleek gradu berrietako curriculuma hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikas ditzaten sustatu.

k) Ikastegiko kideek eta interes taldeek kalitateari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza har dezaten bultzatu.

l) Ikastegiko zuzendaritzari aholkua eman Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari dagozkion gaietan.

m) Ikastegiko Batzarrari erabakiak onartzeko proposatu, betiere haren eskumenen arlokoak izanik.

n) Irakasleen irakaslana ebaluatzeko programako (Docentiaz) txostenak egin.

o) Batzorde espezifikoak sortu, beharrezkoa joz gero.

p) Estatutuek eta horiek garatzeko arauak bere gain uzten dituzten gainerako eginkizun guztiak, edo ikastegiko Fakultateko Batzarrak eskuordetzen dizkionak.

2.– Ikastegiko Batzarrak, zuzendaritza edo dekanotza taldearen proposamenez, kalitatearen kudeaketarekin zerikusia duten beste zeregin batzuk eskuordetu ahal izango dizkio Kalitate Batzordeari, esaterako ikastegiko irakats eskaintzaren kalitatea aldiro ebalua dadin bermatzea, eta unibertsitatearen zerbitzu publikoa hobetzeko neurriak proposatzea.

4. artikulua.– Osaera.

1.– Hauek izango dira Kalitate Batzordea osatuko dutenak:

a) Ikastegiko dekanotza taldeko hiru ordezkari.

b) Irakasle eta ikertzaileen bost ordezkari, ikastegiko zuzendaritzak aukeratuak, ikastegian egoitza duten sailen edo ikastegiko sail atalen proposamenez. Sail/Atal bakoitzak kide bat proposa dezake, baina zuzendaritza taldeak berretsi beharko du aukeraketa hori. Saiatu egingo da, ahal den neurrian, irakasle eta ikertzaile horiek dekanotza taldekoak izan ez daitezen.

c) Titulazioko koordinatzaileak, halakorik balego, dekanotza taldekoak izan daitezkeenak.

d) Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkari bat, ahal dela kalitatearen arloan arduraren bat daukana.

e) Ikasleen ordezkari bat, ikastegiko Ikasleen Kontseiluak proposatuta.

2.– Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria izango da batzordeko burua, edo hark eskuordetutako eskumenak darabiltzan pertsona. Ikastegiko Kalitate Batzordeak berak hautatuko du idazkaria bere kideen artean.

3.– Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu Kalitate Batzordeko kideak, zuzendaritzak edo dekanotza taldeak proposatuta. Izendapena lau urterako izango da, epea luzatu ahalko bada ere.

4.– Bi urtean behin berrituko da Kalitate Batzordea, baina irakasle eta ikertzaileen, ikasleen eta AZPkoen ordezkarien erdiak bakarrik, batzorde horren irizpideek eta jardunak jarraipena izan dezaten.

5. artikulua.– Laguntza batzordeak.

1.– Kalitate Batzordeak berorren mende egongo diren laguntza batzordeak sortu ahalko ditu. Aholkuak emateko balioko dute. Kalitate Batzordeak erabakiko du zein izango den batzorde horietako bakoitzaren osaera, zein izango den presidentea eta idazkaria, zer esparrutan jardungo den, funtzioak, eta, behar izanez gero, funtzionamendurako berezitasunak.

2.– Ikastegiak zenbat titulu koordinatu, curriculumak garatzeaz arduratuko diren hainbat batzorde sortu ahalko dira. Unibertsitateko sektore guztiak Kalitate Batzordean ordezkaturik egoteko ezarritako irizpideak bete beharko dira batzorde horiek osatzean. Batzorde horietako kide izango dira mailako edo moduluko koordinatzaileak, halakorik balego.

3.– Batzorde bat sortuko da irakasleen irakaslan ebaluatzeko programarako (Docentiaz) informazio iturri gisa. Batzorde horrek errespetatu egin beharko ditu unibertsitateko sektore guztiak Kalitate Batzordean ordezkaturik egoteko ezarritako irizpideak. Edonola ere, nahitaez egongo dira ikastegiari atxikitako sailtako edo sail ataletako ordezkariak.

Artikulu honetako lehen puntuan jasotakoa gorabehera, Ikastegiko Batzarrak berretsi beharko ditu Docentiaz-i laguntzeko batzordearen osaera eta kideen izendapena.

6. artikulua.– Funtzionamendurako araubidea.

1.– Kalitate Batzordeak Ikastegiko Batzarren bileretarako ezarrita dauden arauak hartuko ditu kontuan haren funtzionamendurako, horiek aplikatu daitezkeen neurrian.

2.– Batzordearen erabakiak bileran daudenen botoen gehiengoz hartuko dira. Presidenteak kalitateko botoa izango du. Batzordearen erabakiek ez dute izaera betearazlea izango. Ikastegiko zuzendaritzari edo dekanotza taldeari igorriko zaizkio behar diren neurriak har ditzaten.

3.– Batzordeko idazkariak akta egin eta Kalitate Batzordeko kide guztiei bidaliko die, eta jendaurrean jarriko du ikastegiko kide guztien esku egon dadin.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Kalitate Batzordea lehenengo aldiz berrituko da sortu eta lau urtera. Gero, kideen erdiak berrituko dira bi urtean behin.

Bigarrena.– Konfidentzialtasuna bermatu beharko dute batzordeetako kideek, batez ere datu pertsonalei dagokienez.

Hirugarrena.– Era berean, datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia hartuko dute kontuan batzordeek datu pertsonalen fitxategiak sortu eta erabiltzean.

## AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.

## IV. ERANSKINA

NAUTIKA ETA ITSASONTZI MAKINERIA GOI ESKOLA TEKNIKOKO KALITATE  
BATZORDEAREN ARAUDIA

Hitzaurrea.

Araudi honen bidez Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko ikastegietako kalitate batzordeen Oinarrizko Arautegian jasotakoa betetzera dator, eta, era berean, Europako Unibertsitate Eremuan sartzeko prozesuarekin lotutako zenbait programetan jasotakoa. Bereziki, gradu berrietako ikasketa planek jasotakoari erantzuten dio, horiek berariaz adierazten baitute ikastegiek Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) bat izango dutela. AUDIT programak, bestalde, eskatzen du KBBS bat duten ikastegiek diseinu bat praktikan ipini behar dutela ikastegiko Kalitate Batzordeak jarritako sistema hori funtzionatzeko ebaluazioaren bitartez. Era berean, UPV/EHUko Irakasleen Irakaskuntza Jardueraren Ebaluazio Programak (Docentiaz) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2009ko abenduaren 22an onartutakoak, jasotzen du ezen praktikan jartzeko ikastegietako kalitate batzordeak garatzeko arautegi bat dagoela.

Ikastegiko Batzarrak izendatutako batzordea da Nautika eta Itsasontzi Makineria Goi Eskola Teknikoko Kalitate Batzordea. Zuzendaritza taldearekin batera dihardu Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren plangintza eta jarraipen zereginetan, eta, gainera, barne komunikaziorako tresnetako bat da, hots, sistema horren politika, helburu, plan, programa, erantzukizun eta lorpenen barne komunikaziorako bideetako bat da. Ikastegiko Kalitate Batzordea da, gainera, ikastegiko zuzendaritza taldeari lagundu eta aholkuak emateko organoa tituluen curriculumak garatzeko plangintzan eta jarraipenean. Hori egingo da gaitasunetan oinarritutako irakatsi eta ikasteko ereduaren arabera, eta metodologia aktiboak eta informazio eta komunikazio teknologiak baliatuz ikaskuntza autozuzendua (banakakoarena eta taldearena) eta etengabeko ebaluazioa sustatuko dira, betiere irakaskuntza eleaniztuna duen testuinguru batean eginik. Era berean, ikastegiko Kalitate Batzordea arduratuko da txostenak egiteaz eta, geroago, irakasleek ebaluatuko dituzte.

Ikastegiko Batzarrari dagokio, UPV/EHUko ikastegietako gobernu eta ordezkaritzarako kide antzeko organoa den aldetik, eskolako kalitate politika eta helburuak onartzea, bai eta Kalitate Batzordearen eraketa, osaera eta funtzioak onartzea ere. Era berean, Ikastegiko Batzarrari dagokio titulazioetarako proposatzen diren hobekuntza ekintzak onartzea, graduako tituluen kalitatea bermatzeko sistemaren esparruan Kalitate Batzordeak egindako txostenak oinarri hartuta, besteak beste.

1. artikulua.– Araudiaren helburua.

1.– Araudi honen helburua da Nautika eta Itsasontzi Makineria Goi Eskola Teknikoko Kalitate Batzordearen egitura, osaera eta eginkizunak zehaztea, batzorde hori baita ikastegian ematen diren graduako titulu-entzako Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) ardura duen organoa.

2.– Araudi honek jasotzen ditu ikastegietako Kalitate Batzordearen Oinarrizko Arautegian ezarri eta nahitaez bete behar diren jarraibideak.

2. artikulua.– Araubide juridikoa.

Hauek dira ikastegiko Kalitate Batzordearen jarduna arautuko dutenak: araudi hau, UPV/EHUko ikastegietako Kalitate Batzordearen Oinarrizko Arautegia –aipatutako oinarrizko arautegi horretara joko da, araudi hartan aurreikusita ez dagoen guztirako–, eta aplikatuko diren gainerako arautegiak.

### 3. artikulua.– Egingizunak.

#### 1.– Kalitate Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Ikastegiko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren diseinua, ezarpena, abiatzea eta jarraipena bultzatu.

b) Prozesuen jarraipena egin haiekin lotutako adierazleen bitartez.

c) Ikastegiko zuzendaritza taldeari aurkeztu batzordean hartutako proposamenak.

d) Ikastegiaren urteko helburuak jaso eta, behar denean, haien formulazioa koordinatu, eta helburuok betetzeko prozesuaren jarraipena egin.

e) Gogobetetze inkesten emaitzak jaso eta haietatik abiatuta hobekuntzak proposatzeko irizpideak eman.

f) Urteko jarraipen txostena egin Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren azterketa eta berrikuspenetik abiatuta, eta beharrezkotzat jotzen diren hobekuntza ekintzak proposatu titulazioetarako ezarritako helburuak betetzeko.

g) Tituluaren akreditazioa lortzen eta aldiro berritzen lagundu.

h) Ikastegiko kalitate politika eta helburuen berri emateko tresna izan, eta helburuok bete eta unibertsitateko kideen artean zabal daitezen bermatu.

i) Titulazioko curriculumak garatzeko plangintzan eta hedapenean lagundu.

j) Ikastegiko irakasleek gradu berrietako curriculumak hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikas ditzaten sustatu.

k) Ikastegiko kideek eta interes taldeek kalitateari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza har dezaten bultzatu.

l) Ikastegiko zuzendaritzari aholkuak eman Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari dagozkion gaietan.

m) Ikastegiko Batzarrari erabakiak onartzeko proposatu, betiere haren eskumenen arlokoak izanik.

2.– Ikastegiko Batzarrak, zuzendaritza taldearen proposamenez, Kalitate Batzordeari eskuordetu ahal izango dizkio kalitatearekin lotutako eginkizunak, adibidez, ikastegien Oinarrizko Arautegiko 9.2.i) artikuluan zehaztutakoa.

### 4. artikulua.– Osaera.

#### 1.– Kalitate Batzordeak hamabi kide izango ditu, era honetara banatuta:

##### a) Berezko kideak:

– Zuzendaria edo berorrek eskuordetutako pertsona

– Kalitateko zuzendariordea

– Idazkari akademikoa

– Titulazioetako koordinatzaileak

b) Irakasle eta ikertzaileen bost ordezkari, ikastegiko zuzendaritzak aukeratuak, irakaslanaduten sailek proposaturik. Horretarako, zuzendaritza taldeak proposatutako en artetik aukeratu du, beharrezkoa bada, edo proposamenak berretsiko ditu. Saiatu egingo da, ahal den neurrian, irakasle eta ikertzaile horiek zuzendaritza taldekoak izan ez daitezen. Egun dagoen proportzioari egokitzeko, hiru ordezkari ikastegian egoitza duen sail bati atxikita egongo dira, eta beste biak gainerako sailtakoak izango dira.

c) Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkari bat, ahal dela kalitatearen arloan arduraren bat daukana.

d) Ikasleen ordezkari bat, ikastegiko Ikasleen Kontseiluak proposatuta.

2.– Zuzendaria izango da batzordeko burua, edo hark eskuordetutako eskumenak darabiltzan pertsona. Ikastegiko Kalitate Batzordeak berak hautatuko du zein izango den batzordeko idazkaria bere kideen artetik.

3.– Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu Kalitate Batzordeko kideak, zuzendaritza taldeak proposatuta. Izendapena lau urterako izango da. Ikasleen ordezkarien kasuan, bi urterako izango da, epea luzatu ahalko bada ere.

4.– Bi urtean behin berrituko da Kalitate Batzordea, baina ordezkari batzuk bakarrik, batzorde horren irizpideek eta jardunak jarraipena izan dezaten. Zuzendaritza taldeko ordezkariak eta titulazioetako koordinatzaileak aldatuko dira zuzendaritza taldea aldatzean. Irakasle eta ikertzaileen ordezkarien erdiak eta AZPren ordezkaria berrituko dira, salbuespen gisa, lehen aldiz, batzordea eratu eta bi urtera.

5. artikulua.– Laguntza batzordeak.

1.– Laguntza batzordeak sortuko ditu Nautika eta Itsasontzi Makineria Goi Eskola Teknikoko Kalitate Batzordeak. Laguntza batzordeak Kalitate Batzordearen mendean egon eta aholku emaileak izango dira.

2.– Curriculumak garatzeko laguntza batzordea sortuko da ikastegiak ematen duen titulazio bakoitzerako. Batzorde bakoitzak osaera hau izango du:

a) Berezko kideak:

– Zuzendaria edo berorrek eskuordetutako pertsona

– Titulazioko koordinatzailea

– Mailetako koordinatzaileak

– Titulazioko praktiken koordinatzailea

b) Irakasle eta ikertzaileen hiru ordezkari, ikastegiko zuzendaritzak aukeratuak, irakaslanaduten sailek proposaturik. Horretarako, zuzendaritza taldeak proposatutako en artetik aukeratu du, beharrezkoa bada, edo proposamenak berretsiko ditu. Saiatu egingo da, ahal den neurrian, irakasle eta ikertzaile horiek zuzendaritza taldekoak izan ez daitezen.

c) Hizketagai den titulazioko ikasleen ordezkari bat, ikastegiko Ikasleen Kontseiluak proposatuta.

3.– Zuzendaria izango da curriculumak garatzeko laguntza batzorde bakoitzeko buru, edo hark eskuordetutako eskumenak darabiltzan pertsona. Ikastegiko Kalitate Batzordeak berak hautatuko du zein izango den batzordeko idazkaria bere kideen artetik.



4.– Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu curriculuma garatzeko laguntza batzordeetako kideak, zuzendaritza taldeak proposaturik. Kideak berritzeko, Kalitate Batzordeko kideak berritzeari buruz jasota dagoenaren arabera egingo da.

5.– Curriculuma garatzeko laguntza batzordeek Kalitate Batzordeari lagunduko diote. Eginkizun hauek izango dituzte:

a) Titulazioko curriculuma garatzeko plangintzan eta hedapenean lagundu.

b) Ikastegiko irakasleek gradu berrietako curriculuma hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikas ditzaten sustatu.

c) Kalitate Batzordeak agintzen dizkionak.

6.– Docentiaz Laguntza Batzordea sortu ahalko da, irakasleen irakaslana ebaluatzeko programarako informazio iturri gisa. Hauek dira batzordeak izango dituen kideak:

a) Berezko kideak:

– Zuzendaria edo berorrek eskuordetutako pertsona

– Idazkari akademikoa

b) Irakasle eta ikertzaileen sei ordezkari, ikastegiko zuzendaritzak aukeratuak, irakaslana duten sailek proposaturik. Horretarako, zuzendaritza taldeak proposatutako artetik aukeratu du, beharrezkoa bada, edo proposamenak berretsiko ditu. Saiatu egingo da, ahal den neurrian, irakasle eta ikertzaile horiek zuzendaritza taldekoak izan ez daitezen.

7.– Zuzendaria izango da batzordeko burua, edo hark bere ordezkari horretarako izendatzen duena. Kalitate Batzordeak berak erabakiko du, bere kideen artetik, zein izango den batzordeko idazkaria.

8.– Hauek dira Docentiaz Laguntza Batzordeak izango dituen eginkizunak:

a) Irakasleen lana ebaluatzeko txostenak egin, Kalitate Batzordeak berretsi eta bidaltzeko.

b) Kalitate Batzordeak agintzen dizkionak.

6. artikulua.– Funtzionamendurako araubidea.

1.– Kide izatea eta plaza hutsak betetzea.

Ikastegiko Kalitate Batzordeko kidea izateko egoera pertsonala eta besterenezina da, pertsona batek ordezkari izateari utziko dio UPV/EHUko Estatutuetan ezarritako arrazoiengatik. Plaza hutsik izanez gero, edozein arrazoi dela eta, plaza hori araudi honetako 4.1 artikuluan jasotakoaren arabera beteko da.

2.– Eskubideak eta betebeharrak.

Ikastegiko Kalitate Batzordeko kideek batzordearen bileretara joateko eskubidea eta betebeharra dute, eta arautegi honek betearazten dizkien eginkizunak betetzeko. Bileretara joateak unibertsitateko gainerako betebeharrak betetzetik salbuetsiko ditu organoko kideak, baina organoak beharrezko neurriak hartuko ditu kideak bileretara joan ahal izan daitezen eta aldi berean zerbitzua bete dadin bermatzeko.

3.– Batzordea lau hilabetez behin bilduko da, gutxienez.

4.– Docentiaz Batzordea eratzen bada eta laguntza batzorde horretako kide diren irakasleei buruzko txostena egin behar badu, irakasle horiek ez dira egongo batzordearen bileran beren kasua aztertzen denean.

5.– Batzordearen erabakiak bileran daudenen botoen gehiengoz hartuko dira. Presidenteak kalitateko botoa izango du. Batzordearen erabakiek ez dute izaera betearazlea izango.

6.– Idazkariak akta egin eta Kalitate Batzordeko kide guztiei bidaliko die, eta jendaurrean jarriko du ikastegiko kide guztien esku egon dadin, betiere araudi honetako xedapen gehigarrian jasotakoa kontuan hartuta.

7.– Haren araubidean jaso ez diren kontuetarako, Kalitate Batzordea, eta sortzen diren laguntza batzordeak ere, Ikastegiko Batzarraren bileretarako ezarrita dauden arauen arabera jardungo da, baldin eta aplikatzeko modukoak badira.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Konfidentziasuna bermatu beharko dute batzordeetako kideek, batez ere datu pertsonalei dagokienez.

Era berean, datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia hartuko dute kontuan batzordeek datu pertsonalen fitxategiak sortu eta erabiltzean.

#### AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.

## V. ERANSKINA

GASTEIZKO ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLAKO KALITATE  
BATZORDEAREN ARAUDIA

Hitzaurrea.

Araudi honen bidez Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko ikastegietako kalitate batzordeen Oinarrizko Arautegian jasotakoa betetzera dator, eta, era berean, Europako Unibertsitate Eremuan sartzeko prozesuarekin lotutako zenbait programetan jasotakoa. Bereziki, gradu berrietako ikasketa planek jasotakoari erantzuten dio, horiek berariaz adierazten baitute ikastegiek Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) bat izango dutela. AUDIT programak, bestalde, eskatzen du KBBS bat duten ikastegiek diseinu bat praktikan ipini behar dutela ikastegiko Kalitate Batzordeak jarritako sistema hori funtzionatzeko ebaluazioaren bitartez. Era berean, UPV/EHUko Irakasleen Irakaskuntza Jardueraren Ebaluazio Programak (Docentiaz) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2009ko abenduaren 22an onartutakoak, jasotzen du ezen praktikan jartzeko ikastegietako kalitate batzordeak garatzeko arautegi bat dagoela.

Ikastegiko Batzarrak izendatutako batzordea da Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako Kalitate Batzordea. Zuzendaritza taldearekin batera dihardu Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren plangintza eta jarraipen zereginetan, eta, gainera, barne komunikaziorako tresnetako bat da, hots, sistema horren politika, helburu, plan, programa, erantzukizun eta lorpenen barne komunikaziorako bideetako bat da. Ikastegiko Kalitate Batzordea da, gainera, ikastegiko zuzendaritza taldeari lagundu eta aholkuak emateko organoa tituluen curriculumak garatzeko plangintzan eta jarraipenean. Hori egingo da gaitasunetan oinarritutako irakatsi eta ikasteko ereduaren arabera, eta metodologia aktiboak eta informazio eta komunikazio teknologiak baliatuz ikaskuntza autozuzendua (banakakoarena eta taldearena) eta etengabeko ebaluazioa sustatuko dira, betiere irakaskuntza eleaniztuna duen testuinguru batean eginik. Era berean, ikastegiko Kalitate Batzordea arduratuko da txostenak egiteaz eta, geroago, irakasleek ebaluatuko dituzte.

Ikastegiko Batzarrari dagokio, UPV/EHUko ikastegietako gobernu eta ordezkarietarako kide antzeko organoa den aldetik, ikastegiko kalitate politika eta helburuak onartzea, bai eta Kalitate Batzordearen eraketa, osaera eta funtzioak onartzea ere. Halaber, Ikastegiko Batzarra da titulazioak hobetzeko ekintzak onartzeaz arduratu behar duena, Graduak Tituluen Kalitatea Bermatzeko Sistemaren markoan eta Kalitate Batzordeak aurkeztutako sistema ebaluatzeko txostenetan, besteak beste, oinarrituz.

1. artikulua.– Araudiaren helburua.

1.– Araudi honen helburua da Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako Kalitate Batzordearen egitura, osaera eta eginkizunak zehaztea, batzorde hori baita ikastegian ematen diren graduak tituluetarako Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) ardura duen organoa.

2.– Araudi honek jasotzen ditu ikastegietako Kalitate Batzordearen Oinarrizko Arautegian ezarri eta nahitaez bete behar diren jarraibideak.

2. artikulua.– Araubide juridikoa.

Hauek dira ikastegiko Kalitate Batzordearen jarduna arautuko dutenak: araudi hau, UPV/EHUko ikastegietako Kalitate Batzordearen Oinarrizko Arautegia –aipatutako oinarrizko arautegi horretara joko da, araudi hartan aurreikusita ez dagoen guztirako–, eta aplikatu dakizkiokeen gainerako arautegiak.

### 3. artikulua.– Egingizunak.

#### 1.– Kalitate Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren diseinua, ezarpena, abiatzea eta jarraipena bultzatu.
- b) Prozesuen jarraipena egin haiekin lotutako adierazleen bitartez.
- c) Ikastegiko zuzendaritza taldeari aurkeztu batzordean hartutako proposamenak.
- d) Ikastegiaren urteko helburuak jaso eta, behar denean, haien formulazioa koordinatu, eta helburuok betetzeko prozesuaren jarraipena egin.
- e) Gogobetetze inkesten emaitzak jaso eta haietatik abiatuta hobekuntzak proposatzeko irizpideak eman.
- f) Urteko jarraipen txostena egin Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren azterketa eta berrikuspenetik abiatuta, eta beharrezkotzat jotzen diren hobekuntza ekintzak proposatu titulazioetarako ezarritako helburuak betetzeko.
- g) Tituluaren akreditazioa lortzen eta aldiro berritzen lagundu.
- h) Ikastegiko kalitate politika eta helburuen berri emateko tresna izan, eta helburuok bete eta unibertsitateko kideen artean zabal daitezzen bermatu.
- i) Titulazioko curriculuma garatzeko plangintzan eta hedapenean lagundu.
- j) Ikastegiko irakasleek gradu berrietako curriculuma hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikas ditzaten sustatu.
- k) Ikastegiko kideek eta interes taldeek kalitateari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza har dezaten bultzatu.
- l) Ikastegiko zuzendaritzari aholkuak eman Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari dagozkion gaietan.
- m) Ikastegiko Batzarrari erabakiak onartzeko proposatu, betiere haren eskumenen arlokoak izanik.

2.– Ikastegiko Batzarrak, zuzendaritza taldearen proposamenez, Kalitate Batzordeari eskuordetu ahal izango dizkio kalitatearekin lotutako eginkizunak, adibidez, ikastegien Oinarrizko Arautegiko 9.2.i) artikuluan zehaztutakoa.

### 4. artikulua.– Osaera.

#### 1.– Kalitate Batzordeak hamabi kide izango ditu, era honetara banatuta:

- a) Berezko kideak:
  - Zuzendaria edo berorrek eskuordetutako pertsona.
  - Ikasketa Berrikuntza eta Kalitateko zuzendariordea.
  - Titulazioko koordinatzailea.
- b) Irakasle eta ikertzaileen lau ordezkari, ikastegiko zuzendaritzak aukeratuak, ikastegiari atxikitako irakasleen sailek proposaturik edo ikastegian eratutako sail atalek, halakorik balego. Horretarako, zuzendaritza taldeak proposatutako en artetik aukeratu du, beharrezkoa bada, edo

proposamenak berretsiko ditu. Saiatu egingo da, ahal den neurrian, irakasle eta ikertzaile horiek zuzendaritza taldekoak izan ez daitezen.

c) Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkari bat, ahal dela kalitatearen arloan arduraren bat daukana.

d) Ikasleen ordezkari bat, ikastegiko Ikasleen Kontseiluak proposatuta.

2.– Zuzendaria izango da batzordeko burua, edo hark eskuordetutako eskumenak darabiltzan pertsona. Ikastegiko Kalitate Batzordeak berak hautatuko du zein izango den batzordeko idazkaria bere kideen artean.

3.– Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu Kalitate Batzordeko kideak, zuzendaritza taldeak proposatuta. Izendapena lau urterako izango da. Ikasleen ordezkarien kasuan, bi urterako izango da, epea luzatu ahalko bada ere.

4.– Bi urtean behin berrituko da Kalitate Batzordea, baina ordezkari batzuk bakarrik, batzorde horren irizpideek eta jardunak jarraipena izan dezaten. Zuzendaritza taldeko ordezkariak eta titulazioko koordinatzailea aldatuko dira zuzendaritza taldea aldatzean. Irakasle eta ikertzaileen ordezkarien erdiak eta AZPren ordezkaria berrituko dira, salbuespen gisa, lehen aldiz, batzordea eratu eta bi urtera.

5. artikulua.– Laguntza batzordeak.

1.– Kalitate Batzordeak berorren mendean egongo diren laguntza batzordeak sortu ahalko ditu. Aholkuak emateko balioko dute. Kalitate Batzordeak erabakiko du zein izango den batzorde horietako bakoitzaren osaera, zein izango den presidentea eta idazkaria, zer esparrutan jardungo den, funtzioak, eta, behar izanez gero, funtzionamendurako berezitasunak.

2.– Ikastegiak zenbat titulu koordinatu, curriculumak garatzeaz arduratuko diren hainbat batzorde sortu ahalko dira. Unibertsitateko sektore guztiak Kalitate Batzordean ordezkaturik egoteko ezarritako irizpideak bete beharko dira batzorde horiek osatzean. Batzorde horietako kide izango dira mailako edo moduluko koordinatzaileak, halakorik balego.

3.– Era berean, Docentiaz Laguntza Batzordea sortu ahalko da, irakasleen irakaslan ebaluatzeako programarako informazio iturri gisa. Batzorde horrek errespetatu egin beharko ditu unibertsitateko sektore guztiak Kalitate Batzordean ordezkaturik egoteko ezarritako irizpideak. Edonola ere, nahitaez egongo dira ikastegiari atxikitako sailletako edo sail ataletako ordezkariak, halakorik balego.

6. artikulua.– Funtzionamendurako araubidea.

1.– Kide izatea eta plaza hutsak betetzea.

Ikastegiko Kalitate Batzordeko kidea izateko egoera pertsonala eta besterenezina da, pertsona batek ordezkari izateari utziko dio UPV/EHUko Estatutuetan ezarritako arrazoiengatik. Plaza hutsik izanez gero, edozein arrazoi dela eta, plaza hori araudi honetako 4.1 artikuluan jasotakoaren arabera beteko da.

2.– Eskubideak eta betebeharrak.

Ikastegiko Kalitate Batzordeko kideek batzordearen bileretara joateko eskubidea eta betebeharra dute, eta arautegi honek betearazten dizkien eginkizunak betetzeko. Bileretara joateak unibertsitateko beste betebeharrak batzuetatik salbuetsiko du, eta horrekin zerikusia duten

organoek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte, batetik, bileretara joateko betebeharra gauzatzeari ahalbidetzeko, eta, bestetik, zerbitzua eman ahal izateko aukera ere bermatzeko.

3.– Batzordea lau hilabetez behin bilduko da, gutxienez.

4.– Docentiaz Batzordea eratzen bada eta laguntza batzorde horretako kide diren irakasleei buruzko txostena egin behar badu, irakasle horiek ez dira egongo batzordearen bileran beren kasua aztertzen denean.

5.– Batzordearen erabakiak bileran daudenen botoen gehiengoz hartuko dira. Presidenteak kalitateko botoa izango du. Batzordearen erabakiek ez dute izaera betearazlea izango.

6.– Idazkariak akta egin eta Kalitate Batzordeko kide guztiei bidaliko die, eta jendaurrean jarriko du ikastegiko kide guztien esku egon dadin, betiere araudi honetako xedapen gehigarrian jasotakoa kontuan hartuta.

7.– Haren araubidean jaso ez diren kontuetarako, Kalitate Batzordea, eta sortzen diren laguntza batzordeak ere, Ikastegiko Batzarraren bileretarako ezarrita dauden arauen arabera jardungo da, baldin eta aplikatzeko modukoak badira.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Konfidentziasuna bermatu beharko dute batzordeetako kideek, batez ere datu pertsonalei dagokienez.

Era berean, datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia hartuko dute kontuan batzordeek datu pertsonalen fitxategiak sortu eta erabiltzean.

#### AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.